

ANIMALIEN INBENTARIOA IRUDIDUNA

Testua: VIRGINIE ALADJIDI

Irudiak: EMMANUELLE TCHOUKRIEL

Itzulpena: JUANJOXE PETRIRENA eta MIKEL TABERNA

Azal gogorrez koadernatua. 21,5 x 30 cm. 80 or. 17 €

LOS + 2012 (GERMÁN SÁNCHEZ RUIPÉREZ FUNDAZIOA)
IRAKURKETAREN PLAN NAZIONALA (SEP México) 2014

Animalien inbentarioa irudiduna (euskara)

ISBN 978-84-9172-132-1. Zientzia.

Inventario ilustrado de animales (gaztelania)

ISBN 978-84-15250-33-3. Ciencias.

Inventario ilustrado de animals (galegoa)

ISBN 978-84-15250-34-0. Ciencias.

Inventari iluustrat d'animals (katalana)

ISBN 978-84-15250-79-1. Ciències.


Inventário ilustrado dos animals (portugesa)

ISBN 978-989-749-030-9. Ciências.

Hemen erakusten diren espezieetako batzuk gaur egun mehatxatuta daude (tigrea edo txinpantzea); beste batzuk galzorian daude (errinozero beltza, itsas txakur fraidea eta larruzko dortoka); eta badira dagoeneko desagertu direnak animalia basati gisara (orix izenekoa, adibidez). Nahi genuke lan honek balio izatea kontzientzia hartzeko halakoak babestu behar direla eta, oro har, hain ederrak diren animalia hauek errespetatzeko eta haienganako jakin-mina pizteko.

«Animalien inbentarioa (irudiduna)» honek mundu osoko fauna ordezkatzen duten ehun bat espezie biltzen ditu, hala ornodunak -ugaztunak, hegaztiak, arrainak, anfibioak, narrastiak- nola ornogabeak, zeinak, 60 klase baino gehiagotan sailkatuak, animalia espezieen % 95 baitira. Animalia bakoitzari dagokionez, izen zientifikoa nahiz arrunta ematen dira, eta haren deskribapena gehitzen da akuarelaz koloreztatutako marrazki naturalistaren ondoan.

Animaliak sailkatuak aurkituko ditugu, ingurune geografiko hauen arabera: oihan tropikala, basamortua, sabana, mendialde eta oihan epelak, eskualde polarra, ozeanoa, ur-bazterra, jendeztatutako eremua eta abeletxea. Hain desberdinak diren tukana eta behia aurkituko ditugu liburu berean, eta bien artean beste hamaika gehiago: dromedarioa, lehoinabarra, otsoa, arrabioa, hartz zuria, izurdea, burrunzia edo pauma. Liburu hau katalogo darwiniar interesgarria da, natura hobeki ezagutzeko eta, beraz, hura zaintzen laguntzeko.



- **Gala:** faunaren katalogoa, mundu osoko 100 bat espezie biltzen dituena.
- **Zeln adinetarako:** 6 urtetik aurrera.
- **Nabarentzekoak:** irudi errealistak, akuarelaz koloreztatutak; irudi-orri bakoitzean, animalia irudiarekin batera, izen arrunta, izen zientifikoa eta deskribapena ematen dira; habitaten arabera sailkatuta; beste *Inbentario irudiduna*: «dinosaurioak», «fruitu eta barazkiak», «hegaztien».
- **Liburuaren lagina:**
<https://issuu.com/kalandraka.com/docs/animalien-inbentarioa-eusk>

Virginie Aladjidi

Hainbat urtez gazteentzako aldizkarietan eta argitaletxeetan aritu da. Gaur egun, liburu eta testu bildumak sortzen ditu, Caroline Pellissier lankide duela.
<http://virginiealadjidi.blogspot.com>

Emmanuelle Tchoukriel

Arte Aplikatuaren ikasketak egin zituen eta ikusizko komunikazioaren arloan osatu zuen bere formakuntza, Parisko Estienne Eskolan sartu eta irudigintza mediko eta zientifikoa espezializatu baino lehen.
<http://tchouk-tchouk.blogspot.com>

